

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA; HORREN BIDEZ, PARTZIALKI ONARTZEN DA XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK, EL ROMERAL EHIZTARIEN ELKARTEKO PRESIDENTEAK, ARABAKO EHIZA FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZARRAREN 2016KO URRIAREN 28KO EBAZPENAREN KONTRAKO ERREKURTSOAREN USTEZKO EZESPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA

Espediente-zenbakia: 35/2016

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2016ko azaroaren 11n Kirol Justiziako Euskal Batzordean (aurrerantzean Batzordea). XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidente modura, aurkeztutako errekurtsoa sartu zen, idatzian adierazten denez «Arabako Ehiza Federazioaren 2016ko federazioko hauteskunde-batzarraren 2016ko urriaren 28ko ebazpenaren aurkakoa». Idatzia irakurtzean errekurtsoa hasierako errekurtsoaren ustezko ezestearen aurkakoa dela iradoki daiteke, izan ere, Hauteskunde Batzarrak errekurtsoa aurkeztu eta 4 egun naturaleko gehienezko epean ez du ebazpenik eman, hauteskunde-araudiak egiteko eta euskal lurraldetako kirol-federazioek hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dituen 2012ko otsailaren 19ko Kultura Sailburuaren Aginduaren (aurrerantzean, 2012ko otsailaren 19ko Agindua) 33. artikuluko 1. eta 3. ataletan aurreikusten den moduan.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtso hori izapidetzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion eta audientzia-izapidea eskaini zion Arabako Ehiza Federazioari, Lurralde Federazio horretako presidente hautetsiari eta Euskadiko Ehiza Federazioari.

Hirugarrena.- Arabako Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak batzorde honek bidalitako errekerimenduari erantzun zion, eta hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa eta alegazio-idazkia aurkeztu zituen 2016ko abenduaren 21ean.

Laugarrena.- Euskadiko Ehiza Federazioak alegazioak eta proben proposamena jasotzen dituen idatzia aurkeztu zuen 2016ko abenduaren 5ean.

Bosgarrena.- Arabako Ehiza Federazioko presidente hautetsiak ez du alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsok aztertzeko eta ebazteko*».

Bigarrena.- Errekurtsogileak, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak, El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentek, bere desadostasuna erakutsi zuen Arabako Ehiza Federazioaren 2016ko urriaren 28ko Ebazpenarekin, eta haren aurka errekurtsua jarri zuen 2016ko azaroaren 2an. Hauteskunde Batzordeak, ikusiko dugunez, ez du haren inguruan esanbidezko ebazpenik eman.

2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 33.1 artikuluan errekurtsoen ebazpenari dagokionez, xedatzen denez, Hauteskunde Batzordeak ebazpena emango du, gehienez, 4 egun naturaleko epearen barnean errekurtsua aurkezten denetik zenbatzen hasita. Halaber, 33. artikuluko horretako 3. atalean gaineratzen denez, errekurtsua ez bada berariaz erabakitzen ezarritako epean, ezetsizat jo ahal izango da, eta, hala, zabalik geratuko da Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzeko bidea.

Aztergai den errekursoaren egitatezko aurrekarien atalean gogorarazten denez, Hauteskunde Batzordeak 2016ko urriaren 28ko Ebazpena eman du, kirol klub eta elkarten estamentuan Hauteskunde Batzordeak onartutako hautesle-errola bertan behera utzi zuen Batzorde horren 2016ko uztailaren 14ko Ebazpena (11/2016 zenbakiarekin izapideturiko espedientean hartua) gauzatuz, estamentu horretako hautesle-errolan dagokion identifikazio fiskalerako zenbakirik (IFZ) ez duten erakundeak baztertzeko asmoa aintzatetsiz (errekursoan adierazten denaren arabera).

Batzordearen 2016ko uztailaren 14ko ebazpen hori berretsi egin zen 2016ko azaroaren 29ko Batzordearen ebazpenez, arestian aipatutako 11/2016 zenbakidun espedientean hartua, Arabako Ehiza Federazioak jarritako berraztertzeko errekurtsua ezetsi zuena.

Ebazpen horiek betez, Hauteskunde Batzordeak 2016ko urriaren 28ko bere Ebazpena eman zuen, orain interesatzen denerako, eduki hau barneratzen duena:

«Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenarekin bat etorriz, hautesle-errola berriro argitaratzen da kirol klub eta elkarten IFK kodea eta erregistro-zenbakia adierazita (...).

Erroldan zenbaketari dagokionez inolako aldaketarik ez dagoela ikusirik, klub en zerrenda bera izanik, egintzak mantentzeko teoria oinarritzat hartuta, eta hurrengo egintzetan inolako aldaketarik ez dagoela kontuan hartuta, hauteskunde-prozesua ez da osorik errepikatuko, hautesle-errola adierazitako moduan konpontzeari dagokion salbuespenarekin.

Hori dela eta, hautesle-errola argitaratzen da adierazitako moduan eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiei jarraituz eta Arabako Foru Aldundiak ezarritako baldintzetan. Hala, bost egun naturaleko epea ematen da horri dagozkion inpugnazioak aurkezteko,

haren ganean egiteko aldaketen inguruan eskusiboki eta ez bere garaian egin beharreko aldaketen inguruan.

Ebazpen horren aurka errekurtsua jarri ahal izango da Hauteskunde Batzordearen aurrean bi egun balioduneko epearen barnean (...).».

Errekurtsuaren oinarri juridikoan, Batzorde honek errekurtsua ebazteko duen eskumena, errekurtsogileak hura jartzeko duen eskubidea eta errekurtsua administrazio-isiltasunak eraginda ezetsi egin dela kontuan hartuta, oinarri juridiko materialetan, errekurtsuaren arrazoi hauek artikulatzen dira:

1.- Lehenik eta eta behin, Hauteskunde Batzordearen erabakiak inpugnatzeko epeari buruzko zenbait ohar ematen dira eta baita 2016ko urriaren 2tik aurrera larunbatak egun baliodun modura ez zenbatzeari buruz ere, izan ere, egun horretatik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, indarrean dago, eta bertako 30.3. artikuluan larunbatak ez dira egun baliodun modura agertzen.

Errekurtsuan gaineratzen denez, ez dago zehatz 2016ko urriaren 28ko Ebazpena noiz argitaratu zen, eta adierazten da erabakia hartu zen egunez (ostirala) ez zela erabakiaren publizitaterik egin federazioaren webgunean; urriaren 30ean, astelehenean (jaiegun bezpera), federazioaren egoitza itxita egon zela; eta azaroaren 1a, asteartea, ez zela egun balioduna Domu Santu eguna ospatzen zelako.

Halaber, argudiatzen da Hauteskunde Batzordeari dagokiola erabakiak argitaratzeko eguna bermatzea, publizitatea ahalbidetze aldera, eta hauteskunde-prozesua eta bertako egintzak hedatzeko betebeharraren eduki gisa dagozkion eskubide sozialak gauzatzea, eta kasu honetan ez dagoela argi egintza noiz argitaratu zen eta zein bitarteko erabili zen (taula, federazioaren bitarteko elektronikoa, telematikoa eta informatikoa, prentsa-argitalpena, posta bidezko jakinarazpena, etab.).

Argudio horiek guztiak, hauteskunde-egintzak hedatzeari buruz dauden legezko erreferentziekin batera, egiten dira jasota gera dadin 2016ko urriaren 28ko Ebazpenaren aurkako errekurtsua, 2016ko azaroaren 2an aurkeztu zela, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 32. artikuluan adierazten den bi egun balioduneko epearen barnean, errekurritutako erabakiaren errekurtsuan ere agertzen zen epea.

Gainera, alegazio hori egiten da, era berean, erabakiaren publizitate formalaren egintzan irregulartasun bat edo akats nabarmen bat dagoela justifikatzeko, zeinaren ondorioz hartzaileak babesik gabe geratzen baitira. Horrenbestez, errekurtsua jartzen duen aldeak ulertzen duenez, baliogabetasun zigorpean, argitaratzeko egintza errepikatu egin behar da, bertan argitalpen-eguna (berria) adieraziz, eta gainerako eragindunentzat errekurtsua jartzeko epe berria irekiz.

Beraz, alde errekurtsogileak amaitzeko adierazten duenez, *«edo argitalpen-egintza baliogabetu egiten da, edo 2016ko urriaren 28ko ebazpenaren edo erroldaren aurka aurkezten den edozein erreklamazio onartu egin behar dela ulertu beharko litzateke epea alde batera utzita, izan ere, akatsak ezin dio onurarik egin hura sorrarazi duenari»*.

2.- Errekurtsuaren bigarren arrazoi bat argitaratutako hautesle-erroldaren edukiari buruzkoa da.

Errekurtsuan hautesle-erroldak duen garrantzia azpimarratzen da, izan ere, hautetsi eta hautesle izateko betekizunak betetzen dituztenen erregistro ofiziala da eta, federazioko hauteskunde kasuan, hautesleria estamentutan banatzea ahalbidetzen du eta, horien barnean, sekziotan. Gainera, Asanblea Orokorreko hautesleria konfiguratzeko duen lurraldeko federaziotan eta Hauteskunde Batzordeak Asanbleari dagokion kide kopurua finkatzeko erreferentziazko esparrua da.

Horregatik guztiatik, errolda behar bezala konfiguratzeko funtsezkoa da, eta gero zehaztasuna eta objetibotasuna erroldak bete beharreko bermeak dira.

Horrela, erregistro horretan hauteskunde-gaitasun aktiboaren betekizun positibo eta negatiboak betetzen dituzten pertsona guztiak (fisiko nahiz juridikoak) agertu behar dira, bazterkeriarik gabe.

Hautesle-errola Hauteskunde Batzordeak onartu behar duenez hauteskunde-prozesua abiatzeko unean, bertako kide izateko betekizunak bete egin behar dira, hauteskunde-prozesuaren une horri dagokionez, erroldan dagozkion inpugnazioen edo haren aurka egokitzen jotzen diren alegazioak egitearen ondorioz egiten diren zuzenketak alde batera utzita.

2016ko urriaren 28ko Hauteskunde Batzordearen Ebazpena, ustez, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikuluan ezartzen diren betekizunetara egokitzen bada ere, horrekin aurreko errola baliogabetu zuten Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Ebazpenak betez, alde errekurtsogilearen arabera hori ez da gertatzen, izan ere, berriro onartutako erroldan bi betekizun ez dira betetzen:

a) Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan, kirol klub eta elkarten kasuan, inskribatu izanaren zenbakirik ez da inon ageri. Datu horrek legez eraturako pertsona juridiko izatea egiaztatuko luke eta, horrenbestez, gaitasun juridiko erabatekoa izatea, izan ere, erregistro horretan inskribatzeak eraketazko ondorioak ditu.

b) IFZri dagokionez, Hauteskunde Batzordea erroldan kirol klub edo talde bakoitzaren IFZ barneratzera mugatu da, eta ez da egiaztatu IFZ izatearen betekizun hori hauteskondeak deitu zirenean betetzen zen ala ez, betekizun hori ezinbestekoa izanik erroldako kide izateko.

Horri dagokionez, alde errekurtsogileak ziurtasunez adierazi du hautesle-errola legez ezarrita egon behar zen unean klub batzuek ez zutela IFZ zenbakirik eta beranduago eskuratu zutela, behin hauteskunde-prozesua abian zela, errola itxita eta hura eratu eta onartzeko unea ere itxita. Horrenbestez, klub horiek ez lirateke hautesle-

erroldan sartu behar 2016ko deialdian. Arrazoi hori dela medio, alde errekurtsogileak batzorde honi probak egiteko baliabideak gaitzeko proposatzen dio, erroldan sartzeko hauteskundeetako unean eskatzen zen IFZ izatearen betekizun hori zein klubek betetzen zuten eta IFZ zenbaki hori beranduago zein klubek eskuratu zuten zehazte aldera.

Azkenik, errekurtsogilea ez dago ados 2016ko urriaren 28ko Erabakiaren azken esaldiarekin, inpugnazioa jartzeko epea irekitzearen helburuari buruzkoarekin, «...*hartan egindako aldaketei dagokienez eskusiboki...*» aipatzen duenean.

Errekurtsogileak ulertzen duenez, behin errolda partzialki baliogabetuta, berriro argitaratzean inpugnazioak jartzeko epe berri bat irekitzen da, objetiboki mugatu gabea, berriro argitaratutako erroldak legezko betekizun eta zehaztapenak erabat betetzen dituela egiaztatzeko.

3.- Eta, azkenik, errekurtsuan adostasunik eza azaltzen da Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-egintzak mantentzeko printzipioa aplikatzeko moduari buruz, zeinaren arabera, hauteskunde-organoa errolda berri bat onartzera mugatzen baita, baliogabetutako erroldak zuen klubek zerrenda bera duena eta, ikusirik, erroldan zenbakikuntzari dagokionez inolako aldaketarik ez dagoela, hauteskunde-prozesuaren osteko egintzak mantendu egiten dira, hauteskunde-prozesua errepikatzeko premiarik gabe.

Haatik, alde errekurtsogileak ulertzen duenez «*hauteskunde-prozesua atzera botatzeak hautesle-errolda partziala (Klubak) eratu arteraino, gerora egindako guztia errepikatzea inplikatzeko du, are gehiago kontuan hartuta federazioko organoetako hauteskundeak hura behar bezala eratzearen baitan daudela, eta Hauteskunde Batzordeak ez du alderdi hori egiaztatu. Kontrakoa egitea, hautesleriaren borondatea faltsutzea litzateke*».

Adierazitako guztiaren arabera, errekurtsuan honakoa eskatzen da:

«A) *Hauteskunde Batzordearen 2016 urriko 28ko Ebazpenari dagokionez, honakoak egin daitezela:*

1) Zenbaketaren hasierako eguna behar bezala zehaztea, izan ere, ebazpenaren data ez da argitaratzen dena zehazki, izan ere, gutxienez, Hauteskunde Batzordeak berak bere egutegian berriaz baliogabe modura deklaraturako epeei dagokienez nahasmen edo gainjartzea ageri da.

2) Edukiari dagokionez: Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakia bete dadila, hauteskunde-prozesuaren barnean hautesle-errola eratzeko unearen ondorengo egintza guztiak errepikatzeke egintza modura adieraziz, bereziki, eta beste batzuen kalterik gabe, dagokion Asanblea hautatzeari eta Federazioko presidentea hautatzeari dagokienez.

B) Hautesle-errolari dagokionez: Berriro era dadila, 2012ko otsaileko Aginduaren 22. artikuluan pertsona fisikoei dagozkien eserlekuri buruz eskatzen den edukia gaineratuz; Hauteskunde Batzordeak bereziki egiaztatuz bertan agertzen diren klubek, bere garaian argitaraturako hauteskunde-egutegiaren arabera, hauteskundeak deitu ziren egunez (2016-04-27) IFZ zutela.

C) Adostu dadila, kautela-neurri modura, 2016ko urriaren 28ko ebazpena bertan behera uztea, beranduago egiteko hauteskunde-egintzak baliozkotzen baititu, idatzi honetako berebat diot egokian jasotzen dugun moduan».

Hirugarrena.- Nahasitako kirol federazioei emandako audientzia-izapideari dagokionez, hurrenkera kronologiko bat jarraituz, lehenik eta behin Euskadiko Ehiza Federazioaren alegazioak eta proben proposamena jasotzen dituen idatzia jaso zen, 2016ko abenduaren 5ean.

Idatzian, lehenik eta behin, adierazten denez, Arabako Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-prozesua atzeratzeko borondatea eta prozesu osoa gobernatu behar lukeen fede on eta konfiantzaren aurkako jarduera bat ohartarazten dira. Prozesuaren atzerapen horrek eragina izango du euskal federazioak jorratu beharreko hauteskunde-prozesuan, izan ere, hura izapidetzeko, lehendabizi, lurraldeko federazioetako prozesuak amaitu behar dira.

El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentek errekurtsioan artikulatutako inpugnazio-arrazoiei buruzko bere balioespenari dagokionez, euskal federazioak bere egiten ditu argudio horiek eta horien laburpen txiki bat egin du errekurtsioaren sostengu diren oinarri juridikoekiko bere atxikimendua adierazteko.

Berriro Hauteskunde Batzordeak prozesua atzeratzeko jarduna eta euskal federazioaren hauteskunde-prozesuan horrek izango duen eragina hartuz, ulertzen duten Batzorde honek azalpenak eman behar dituela *«errolda baliogabetzeko ebazpenari dagokionez eta, era berean, Arabako Ehiza Federazioaren lurraldeko hauteskunde-prozesua behin betikoz amaitu bitartean, Euskal Federazioko organoetan lurraldeko zein kide sartu behar diren argitu behar da, hartako organoetako borondatea gauzatze aldera, Euskal Federazioko organoek hartzen dituzten erabakiak aldi batez baliogabetasun kontuen eraginpean gera ez daitezten. Hau da, ateratzen diren kideak ala hauteskunde-prozesu berrian izendatutakoak»*.

Eta, horregatik guztiagatik, funtsean, El Romeral Ehiztarien Elkarteak egindako eskaerak errepikatzen dituzte, gaiaren sakonean dagoen kontuari nahiz eskatutako kautela-neurriei dagokienez eta, are, baita hautesle-errolan barneratutako hautesleak hauteskunde-prozesua abian jarri zenean horretarako legezko betekizunak betetzen ote zituzten egiaztatzeko proposatutako proba praktikoari dagokionez ere.

Laugarrena.- Azkenik, Arabako Ehiza Federazioak, bere Hauteskunde Batzordearen bidez, 2016ko abenduaren 21ean errekurtsioarekin lotutako

dokumentazioa igorri du eta, horrez gain, alegazioen idatzi bat aurkeztu du, honakoak adieraziz:

1.- Beste ezeren aurretik, errekurtsogileak ez du frogatu klubeko ordezkaria denik eta ez du aurkeztu errekurtsori hori egiteko erabakia hartu zuen gobernu-organoaren (hau da, Klubaren Asanblea Orokorraren) akordioaren kopiarik.

Ulertu behar dugu alegazio hori 2016ko azaroaren 2an Hauteskunde Batzordearen aurrean jarritako errekurtsori dagokiola, hauteskunde-organoaren 2016ko urriaren 28ko Ebazpenari buruzkoa, izan ere, Batzorde honen aurreko errekurtsoen fasean El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidenteak errekurtsoa jartzeko legeztatzen dion ordezkari-tza egiaztatu du, aurrerago adieraziko dugun moduan.

Are gehiago, alegazioaren irismena frogatuta geratzen da, idatzian 2016ko azaroaren 8an pertsona errekurtsogileari, bere ordezkari-tza egiaztatzeko, posta elektronikoz, igorritako eskakizun baten aurreko alegazioak aipatuta. Idatzi horretan aurkeztu ezean, errekurtsoa artxibatu egingo litzatekeela adierazten da.

Aurreko eskakizunari kasurik egin ez zaionez, adierazten da Hauteskunde Batzordeari ez zaiola aukerari eman lehen auzialdian errekurtsoa ebazteko *«izan ere, hura ezagutzera sartuz zituen akatsak konpondu egingo lituzke»*.

Gainera, peritu-proba informatiko bat proposatzen da, aurrez adierazitako eskakizuna barneratzen zuen 2016ko azaroaren 8ko posta elektronikoa behar bezala igorri eta jaso dela egiaztatzeko.

Adierazitakoa aintzat hartuz, Hauteskunde Batzordearen arabera, *«errekurtsiak ez du jarraitu behar, auzialdian artxibatu egin delako eskatutako betekizunak ez egiaztatzeagatik»*, egiaztapen hori ere ez da egon, Hauteskunde Batzordeak errekurtsori honen egoitzan adierazi duenez.

2.- Errekurtsoaren sakoneko gaiari dagokionez, Arabako Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak berriro ere Batzordearen 11/2016 zenbakidun espedientean egindako alegazio berak aipatzen ditu, kontuan hartu gabe oraingo honetan errekurtsio ezberdin baten aurrean gaudela, non, era berean, errekurtsioa jartzeko arrazoi ezberdinak planteatu diren.

Eta horrela, ez dago ados lurraldeko federazio horretako kirol klub eta elkarteen erroldan bertan dauden pertsona juridikoen IFZk agertu beharrarekin eta hori Kultura Sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 22. artikuluan ezartzen dena eta horri dagokionez 11/2016 zenbakidun espedientean Batzordeak ebatzi duena alde batera utzita.

Uste du errekurtsioa onartzeko edo ukatzeko araudi guztia aztertu behar dela bere osotasunean eta aipatutako 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 24. artikulua aipatzen du, errolda egiterakoan Hauteskunde Batzordeak emandako lizentzia guztiak kontuan hartu behar dituela argudiatzeko, era egokian edo desegokian eman ziren baloratu gabe, IFZ federazioan izena emateko baldintza bat balitz (eta ez da).

Eta, haren ustez, hori ez da baldintza bat 16/2006 Dekretuaren 23. eta 25.3 artikuluetan kirol federazio batean sartzeko eta lizentzia eskuratzeko IFZ eskuratzea ezinbestekoa denik ebazten ez delako (16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena). Era berean, hauteskunde-prozesuetan hautesle eta hautagai izateko kirol klub eta elkarteei ezartzen zaizkien baldintzen artean ere ez da halakorik eskatzen, aipatutako 16/2006 Dekretuaren 79. artikulua araberera.

Era berean, argudiatzen denez, 163/2010 Dekretuaren 6. eta 8. artikuluen araberera, IFZ aurretik eskuratzea ez da beharrezkoa Kirol Erakundeen Erregistroan izena emateko eta nortasun juridikoa eskuratzeko (163/2010 Dekretua, ekainaren 22koa, kirol klubei eta taldeei buruzkoa).

Horrenbestez, ondorioztatzen du 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 22. artikuluan pertsona juridiko bat dagokion erroldan ager dadin IFZ izatearen betebeharrari buruz egiten den erreferentzia bakarra ez dela aski betekizun hori eskatzeko.

3.- Azken alegazio modura, aipatzen da errekurritutako Ebazpena 11/2016 espedientean Batzordeak erabakitakoaren ondorio dela, non eskatzen zen IFZ argitaratu beharreko datua zela eta, horren ondorio da, errolda baliogabetzea.

Hauteskunde Batzordearen arabera, El Romeral Ehiztarien Elkarteko egungo errekurtoa harago doa, izan ere, erroldan barneratzeko baldintzetan agertzen ez den betekizun berri bat ezarri nahi da, hots, dagokion Klubak IFZ izatea eta zenbaki hori hauteskundeen aurretik izatea, eta hori guztiori zalantzan jartzen ez delarik erroldako klub guztiak federazioko kide direla, bertan, gutxienez, bi denboralditan inskribatuta daudela eta denbora horretan hauteskunde-araudian eskatzen diren gutxieneko lizentziak izapidetu dituztela.

Hauteskunde Batzordearen ustez, interpretazio hori ez da zuzenbidearen aurkakoa, ez zen El Romeral Ehiztarien Elkarteko aurreko errekurtoan eskatu, eta Batzorde honek ere ez du eskatu aurreko ebazpenetan.

Gainera, hauteskunde-organoak honako argudioa eman du alde errekurtsogilearen asmoei buruz:

«Hauteskunde Batzorde hau ez da nor klubetako eskubide osoko kide izateko baldintza (hala direnik ez da ukatzen) berrikusteko eta ez du horretarako eskumenik eta, horrenbestez, federazioaren artxiboetan oinarrituta eta KJEB batzordeak eskatutakoa betez, baldintzak betetzen dituztenen kasuan, 2012ko otsailaren 19ko Aginduan publizitate modura eskatzen diren datuak islatzen dira.

Klubaren lizentziak izapidetu eta igortzen dituzten dagozkion federazioetako administrazio-zerbitzuei eskatu beharko zaie ez lizentziak inskribatu edota izapidetzea dagokion txartel fiskala aurkezten ez bada, hori eskagarri izan gabe.

Behin duela bi urte baino gehiagotik bertako kide badira eta haien lizentzia izapidetzea onartzen bada, NAN zenbakia (edo hura iraungita egon zein ez) edo IFZ eskuratzeko unea ezin da aparteko betekizun modura aplikatu, non eta kirol-federazioen 16/2006 Dekretu aldatuz hala arautzen ez bada».

Horregatik guztiagatik, Hauteskunde Batzordearen ustez, errekurtoa ezetsi egin behar da osorik.

Bosgarrena.- Errekurtsuan eta espediente hau osatzen duten idatzi ezberdinetan agertzen diren alegazioetatik iradokitzen denez, asko dira Batzorde honek aztertu behar dituen alderdiak aldeek eta hirugarren interesatuek planteatu dituzten guztiei erantzuna emateko.

Lehenengoa Arabako Federazioko Hauteskunde Batzordeak alegatzen duena da, izan ere, 2016ko azaroaren 8an errekurtsogileari, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunari, eskatu zion bere klubeko ordezkari izaera egiaztatzeko eta El Romeral Ehiztarien Elkarteko gobernu-organoaren akordioa ere egiaztatzeko, errekurtoa jartzea onartzekoa.

Hori egiaztatzeko 2016ko azaroaren 7ko Hauteskunde Batzordearen Akordioa aurkezten du, 10 egun balioduneko epea emanez eskakizunari erantzuteko, eta ohartaraziz epe hori igarotzen bada errekurtsuak dituen akats formalak konpondu gabe, hura artxibatu egingo dela. Horrez gain, 2016ko azaroaren 8ko posta elektronikoaren kopia bat aurkezten da, 2016ko azaroaren 7ko Akordioa barneratzen zuena.

Hauteskunde Batzordeak alegatzen du eskakizunari kasurik egin ez zitzaienez errekurtoa artxibatu egin zela. Dena den, zehaztu behar da espedientean ez dela agertzen Hauteskunde Batzordeak hartutako artxibatze berariazko ebazpenik, eta gaineratzen da eskakizuna aintzat hartu izan balitz errekurto hori lehen auzialdian ebatziko litzatekeela eta «*hura ezagutzera zituen akatsak konpondu izango litzatekeela*», berrespen hori komatxo artean sartzen dugu, izan ere, badirudi harekin inplizituki onartzen dela 2016ko urriaren 28an hartutako akordioak, funtsean kirol klub eta elkarten estamentuen hautesle-errola berri bat argitaratzera mugatzen zena bertako kideen IFZ agerraraziz, konpondu beharreko zenbait akats zituela.

Arabako federazioaren Hauteskunde Batzordeko alegazioen idatzian esaten ez dena da 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 33.1 artikuluan, errekurtoen ebazpenari dagokionez, xedatzen denez, Hauteskunde Batzordeak ebazpena emango duela, beranduenera, errekurtoa aurkeztu eta hurrengo 4 egun naturalen barnean.

Gainera, 33. artikuluko horretako 3. atala gaineratzen da, zeinaren arabera, errekurtoa ez bada berariaz erabakitzen ezarritako epean zehar, ezetsizat jo ahal izango da, eta, hala, zabalik geratuko da Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzeko bidea.

Eta kasu honetan gertatzen dena da Hauteskunde Batzordeak ez duela ebatzi El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentearen errekurtoa horretarako ezarrita zegoen epean, eta behin ustezko ezespena gauzatu eta Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzeko bidea irekita geratu denean, egin duela alegazioen idatzian aipatzen den konponketaren eskakizuna, denboraz kanpo, errekurtoaren ebazpenerako ezarritako epeari erreparatzen badiogu.

Inguruabar horiek kontuan hartuz eta errekurtoa Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean hasierako errekurtoaren ustezko ezespena gertatu ondoren aurkeztu denez eta horretarako ezarritako epean, Batzordeak ezin du zuzenbidearekin bateragarri jo Hauteskunde Batzordeak errekurtoa ustez

artxibatu izana eta errekursoaren arrazoi ezberdinak eta espedientetik iradokitzen diren gainerako alderdiak ezagutuko ditu.

Halaber, arrazoi bera dela medio, Batzordeak ez du beharrezkotzat jotzen Hauteskunde Batzordeak proposatzen duen peritu-proba informatikoa, 2016ko azaroaren 8an konpontzeko eskakizuna jakinarazteko posta elektronikoa igorri zela eta aipatu posta elektronikoa hartzaileak jaso zuela egiaztatzekoa (Hauteskunde Batzordeak helarazitako kopian ez da agertzen posta elektronikoa jaso zen eguna).

Azkenik, esan behar da **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak errekurso honen egoitzan El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidente izaera egiaztatu duela, errekursoa jartzeko legaltasuna ematen diona.

Horrenbestez, Arabako Ehiza Federazioko Hauteskunde Batzordeak egindako alegazioak ezin dira onartu.

Seigarrena.- Bada bigarren asmo bat, aztertu behar duguna, 2016ko urriaren 28ko Hauteskunde Batzordearen Ebazpena argitaratu zeneko datari buruzkoa eta errekurtsogileak duen asmoari buruzkoa, ez soilik 2016ko azaroaren 2an aurkeztutako bere errekursoa epe barnean jarrita modura uler dadin, baizik eta Hauteskunde Batzordeak zenbaketa hasi zen eguna zehaztu dezan, izan ere, ebazpenaren data ez dator bat zehazki argitalpenean agertzen denarekin (alde errekurtsogileak adierazten duenez, Hauteskunde Batzordearen ebazpen hori ez zen federazioaren webgunean sartu 2016ko urriaren 28an).

Eta bigarren alderdiari dagokionez, errekurtsogileak ondorioztatzen duenez bada, *«edo argitalpen-egintza baliogabetu egiten da, edo 2016ko urriaren 28ko Ebazpenaren edo erroldaren aurka aurkeztu den edozein erreklamazio onartu egin behar dela ulertu beharko litzateke epea alde batera utzita, izan ere, akatsak ezin dio onurarik egin hura sorrarazi duenari»*.

Egiaz Hauteskunde Batzordeak igorritako espedientean ez da 2016ko urriaren 28ko Ebazpenaren argitalpen-data zehazten duen dokumenturik barneratzen, eta Hauteskunde Batzordearen alegazioen idatzian ez zaio aipamenik egiten errekurtsogileak artikulatutako errekurtsoren arrazoiari, hori argitzeko lagungarri izan zitekeena.

Dena den, errekurtsotik ondoriozta daiteke inolako zalantzarik gabe Hauteskunde Batzordeak Ebazpen gorabeheratsua hedatu egin duela, zehaztugabeko egun batean izan arren, bestela ez baitago ulertzerik El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentek haren berri izana. Hori horrela izanik, Batzorde honek ez du arrazoirik ikusten, oro har, «*argitalpen-egintza*» modura kalifikatzen dena baliogabetzeko.

Argitalpenaren zehaztugabetasun horrek hauteskunde-prozesuan interesatutako beste edozein pertsona fisiko edo juridikori babesik eza sorrarazi balio, pertsona horiek izango dira, hala badagokio, egintza nolabait baliogabetzat jo dadila deklaratzeko edo azaldutako arrazoiagatik errekurtsoa izapidetzea onar dadila eskatzeko asmoa izan dezaketenak. Baina halakorik gertatu ez denez, El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentek ezin du legezkotasun horren babesletzat jo bere burua modu abstraktuan, eta ezin da errekurtsoan planteatzen den irismen orokorra duen asmo bat aintzatetsi.

El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentek 2016ko azaroaren 2an aurkeztutako errekurtsuari dagokionez, hura 2016ko urriaren 28ko Hauteskunde Batzordearen Ebazpenean aipatzen den bi egun baliioduneko epean aurkeztu dela ulertu behar da, kontuan izanik errekurtsoan aipatzen diren denborazko zioak, hots, Ebazpena 2016ko urriaren 28an, ostiralez, hartu zela, larunbata eta igandea baliogabeak zirela, 2016ko urriaren 30ean, astelehenean (jaiegun bezpera), federazioaren egoitza itxita egon zela eta azaroaren 1a ere baliogabea zela Domu Santu eguna zelako.

Are gehiago, adierazi behar da Arabako Ehiza Federazioak ez duela aipatutako errekurtsoa une bakar batean ere ez onartutzat eman hura epez

kanpo aurkeztu zela irizteagatik. Horrenbestez, alde errekurtsogilearen posizio juridikoan ez da inolako eraginik izan horri dagokionez.

Zazpigarrena- Argitaratutako hautesle-eroldaren edukiari dagokionez, kirol klub eta elkarten estamentuaren Hauteskunde Batzordeak, Batzorde honek 11/2016 zenbakidun espedientean hartutako ebazpenak gauzatzearen ondorioz, berriro onartutako errolda ebazpen horiekin eta hauteskunde-araudiarekin bat datorren zehaztu behar da.

Lehenengo ñabardura modura, aipatu behar da alde honek ez duela errekurtsogilearen iritzia partekatzen, hauteskunde-egintza berriarekin (errolda berria onartzea) hura argitaratzean inpugnazioak jartzeko erabateko epe berri bat, inolako muga objektiborik gabea, irekitzeari buruzkoa, izan ere, gure ustez, hauteskunde-egintza horiek errekurritu egin daitezke soilik egintza irmo eta baimenduetan osorik edo partzialki eratorri ez badira.

Horrekin adierazi nahi duguna da, bere garaian hautesle-errolda onartu zenean, haren aurka zuzendutako errekurtsuak eduki jakin bat bazuen, Batzorde honen iritzia hartara mugatzen delarik, errolda hura errekurtsuan aipatu ez ziren alderdietan irmo eta baimendutzat jotzen dela. Horrenbestez, 11/2016 espedientean (bertan eztabaidatzen zena zen kirol klub eta elkarten estamentuen erroldan hura osatzen zuten pertsona juridikoen IFZ agertu behar zela ala ez, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera) Batzorde honek hartutako ebazpenak gauzatzeko helburu eskusiboarekin onartzen den hautesle-errolda berri bat izateak ez du esanahi alderdi horiek zalantzan jar daitezkeenik.

Hori dagokionez, errekurtsuaren bide honetan ezin da alegatu estamentu eztabaidagarriaren erroldan ez dela inon agertzen Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu izanaren zenbakia, izan ere, hasieran errekurritutako erroldan hori adieraz bazitekeen, hura zen prozedurako une egokia, eta ez beste bat, arrazoi hori zela medio hauteskunde-egintza baliogabetzea eskatzeko, egintza IFZ agertzen ez zelako eskusiboki baliogabetzea eskatu gabe. Alde errekurtsogilearen interpretazioa onartzen bada, hauteskunde-

prozesua segurtasunik eza juridikoko egoeran egon daiteke etengabe eta, hain zuzen, epe barnean errekurritzen ez diren administrazio-egintzak irmo eta baimendutzat jotzeko printzipioa aplikatuz horixe da ekidin nahi dena.

Haatik, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 22. artikulua arabera pertsona juridikoen inskripzioan barneratu beharreko datuei buruz ezarritako betebeharrari dagokionez Batzorde honek hartutako ebazpenen inguruan Hauteskunde Batzordeak egin duen aplikazio formalista hutsak bestelako balioespena merezi du, izan ere, errolda berri bat onartzera mugatu da, non hura osatzen duten kirol klub eta elkarten IFZ barneratzea da egiten den bakarra eta, alegazioen idatzitik ondoriozta daitekeenez, ez da egiaztatu IFZ izatearen betekizuna betetzen zen ala ez hauteskunde-prozesua abian jarri eta errolda eratu zen unean.

El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentek ongi alegatzen duen moduan, erroldan sartzeko eskatutako betekizun guztiak, pertsona juridikoen kasuan IFZ izatearena barne, hauteskunde-prozesua abian jarri zenean eta errolda onartzean bete beharrekoak ziren.

Batzorde honek 11/2016 zenbakidun espedientean hartutako ebazpenen betetzea ez da erabatekoa errolda berria berregin eta kirol klub edo talde baten IFZ gaineratuz, baldin eta zenbaki hori, alde errekurtsogileak berresten duenez eta Hauteskunde Batzordeak isilbidez onartzen duenez, hauteskunde-prozesua abian jarri ostean eskuratu bada, behin errolda eta hura eratu eta onartzeko unea itxita. Horrenbestez, hauteskunde-prozesua abiatu eta hautesle-errolda eratzean IFZrik gabe zeuden kirol klub edo elkarteak ezin ziren hautesle-erroldan barneratu eta ez ziren barneratu behar eta, horrenbestez, ezin ziren erroldako kide izatetik eratortzen den hauteskunde-araudiak aitortzen dituen eskubideetako titular izan.

Betekizuna betetzen zen ala ez bere garaian egiaztatu behar zen eta hala egin beharko da Batzorde honek Hauteskunde Batzordearen bidez hartu behar duen ebazpenaren arabera, izan ere, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 6.1. artikuluan ezartzen denez «*Federazio bakoitzaren Hauteskunde Batzordea da hauteskunde-prozesua bultzatzeko ardura duena eta ongi garatzen dela*

ziurtatu behar duena, federazioaren azken auzibidean dagokion hauteskunde-prozesua Zuzenbidera egokitzen dela bermatuz», horretarako eta, zehazki, hautesle-errola onartzeko, hala badagokio, lurraldeko eta Euskadiko federazioko dagokion administrazio-organoaren laguntza izatearen eta hari beharrezkoa zaion dokumentazioa eskatzearen kalterik gabe (2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 24. artikulua).

Horri dagokionez, errekurtsogileak jarritako eta Euskadiko Ehiza Federazioak bere atxikimendua emandako proba-proposamena ukatu egin behar da, zeinaren arabera Batzorde hau izan behar baita Hauteskunde Batzordearekin eta Arabako Foru Ogasunarekin batera, hautesle-errolan barneratutako kirol klub eta elkarteek IFZ noiz eskuratu zuten egiaztatu behar duena. Proba-proposamen hori Arabako lurraldeko federazioaren hauteskunde-prozesuan kirol klub eta elkarten estamentuaren hautesle-errola organo kolegiatu honek eratu behar duela eskatzearen parekoa da, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzeko urriaren 18ko 310/2005 Dekretuan ezarritakoaren arabera Batzordeari hauteskunde-egintzak berrikusteko esleitzen zaion funtzioa gainditzen duena erruz.

Onartuta Hauteskunde Batzordeak ez duela betekizuna bete den ala ez eskatutako moduan egiaztatu eta IFZ hautesle-errola eratu ondoren eskuratu duten kirol klub eta elkarteak daudela (inguruabar hori Hauteskunde Batzordeak isilbidez onartzen du edo, behinik behin, ez du ukatzen), berriro Arabako lurraldeko federazioko kirol klub eta elkarten estamentuaren hautesle-errola balio gabetu egin behar dela ondoriozta daiteke soilik.

Eta Hauteskunde Batzordearen ardura izango da, eksklusiboki organo horri dagokion eskumena izateagatik, hautesle-errola berri bat onartzea, ebazpen honetan aipatzen diren baldintzen arabera izango dena eta pertsona juridikoak hautesle-errolan inskribatu ahal izateko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren egingo dena.

Zortzigarrena.- El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidenteak artikulatutako errekurtsuaren beste arrazoi bat hauteskunde-egintzen inguruko

elkarrizketari buruzkoa da, beste batzuen artean, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 33.7 artikuluan jasotzen dena, non xedatzen denez, *«Egintza jakin batzuk baliogabetzeak berekin ekarriko du irregulartasuna bete ezean eduki bera mantenduko luketen egintza eta izapideak mantentzea»*.

Alde errekurtsogilearen iritziz, ulergaitza da errolda berrestek hauteskunde-prozesuko gainerako fase guztietan eraginik ez izatea. Aitzitik, bere ustez, hauteskunde-prozesuan atzera egiteak gerora egindako guztia errepikatzea dakar, are gehiago kontuan hartuta federazioko organoen hautaketa errolda behar bezala eratzearen baitakoa dela, eta Hauteskunde Batzordeak hori ez du egiaztatu.

Hala da, egintzak mantentzearen printzipioa funtsezkoa printzipioa da hauteskunde arloan eta, jakina, aplikatu beharrekoa da federazioko hauteskunde-prozesuetako hauteskunde-egintzaren bat baliogabetzat jotzen bada. Horri dagokionez, Batzorde honek 11/2016 zenbakidun espedientean hartutako ebazpenean, hautesle-errolda baliogabetzeaz gainera, bertako oinarri juridikoan Arabako lurraldeko federazioko Hauteskunde Batzordeari dagokion betekizun bat jasotzen zen, hots, *«hauteskunde-prozesua akordio honetan jasotakoaren arabera gara dadin beharrezkoak diren akordioak hartzekoa, hala badagokio, baliogabetasun-deklarazio honen eraginik jasotzen ez duten hauteskunde-egintzak mantenduz»*.

Hauteskunde Batzordeak 2016ko urriaren 28ko Ebazpenean egintzak mantentzeari buruz egiten duen aplikazioa antolamendu juridikoaren arabera izango litzateke Batzorde honen irizpidearen arabera, baldin eta bertan adierazten den moduan *«erroldan ez den inolako aldaketarik egiten zenbakikuntzari dagokionez, klubak zerrenda berdina izanik»*.

Haatik, ikusirik Hauteskunde Batzordeak isilbidez onartzen duela eta ez duela ukatzen ez dela egiaztatu pertsona juridikoen kasuan IFZ izatearen betekizuna hauteskunde-prozesua abiatu eta errolda onartzeko unean betetzen zen ala ez eta, aitzitik, isilbidezko onarpen horretatik ondorioztatu behar denez, badirela IFZ hasierako errolda eratu ondoren eskuratu duten kirol klub eta

elkarreak funtsean, erroldan inskripzioa mantentze aldera, ondorioztatu behar da kirol klub eta elkarten estamentuaren errolda berria eratzeak berekin dakarrela bertan barneratzen diren kirol klub eta elkarte batzuen desagertzea.

Eta kirol klub eta elkarten estamentuaren erroldan aldaketaren bat badago eta aldaketa horrek hautesle eta hautetsien zerrenda aldatzea eragiten badu, argi dago horrek eragina izan behar duela hauteskunde-prozesuaren hurrengo faseetan eta Asanblea Orokorraren osakeran. Horrenbestez, alderdi horri dagokionez, El Romeral Ehiztarien Elkarteko presidentearen errekurtsioa onetsi egin behar da, izan ere, kasu honetan hauteskunde-egintzak mantentzearen printzipioa ez da behar bezala aplikatu.

Bederatziagarrena- Amaitzeko, Batzorde honek alegazioak eta proba-proposamena jasotzen dituen Euskadiko Ehiza Federazioaren idatzian barneratzen den eskaera balioetsi behar du, zeinaren arabera Batzorde honi eskatzen zaion adieraz dezala *«Euskadiko Ehiza Federazioaren Organoetan Arabako Federazioko zein kide barneratu behar diren»*.

Eskaera hori egiten da Euskadiko federazioak uste duelako lurraldeko federazioko Hauteskunde Batzordeak atzeratze-jardun bat burutzen duela Euskadiko federazioaren hauteskunde-prozesuan eragina duena, izan ere, hasiera batean, hura hasteko alde aurretik lurraldeko prozesuak amaitu behar dira. Horrenbestez, zaila da Euskadiko federazioaren hauteskunde-prozesua 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen amaituta izatea, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 3. artikuluan oro har aurreikusten den moduan.

Hori dela eta, alegazioak eta proba-proposamenak jasotzen dituen idatziaren oinarri juridikoan argudiatzen denez, Batzorde honek *«errolda baliogabetzeko ebazpenari dagokionez eta, era berean, Arabako Ehiza Federazioaren lurraldeko hauteskunde-prozesua behin betikoz amaitu bitartean, Euskal Federazioko organoetan lurraldeko zein kide sartu behar diren argitu behar du, hartako organoetako borondatea gauzatze aldera, Euskal Federazioko organoek hartzen dituzten erabakiak aldi batez baliogabetasun*

kontuen eraginpean gera ez daitezten. Hau da, ateratzen diren kideak ala hauteskunde-prozesu berrian izendatutakoak».

Jakina, Euskadiko federazioak Kirol Justiziako Euskal Batzordeari egindako eskaera Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzeko urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak hari ematen dizkion eskumenetik harago kokatzen da.

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumena, mintzagai dugun gaian, «*kirol federazioetako Hauteskunde Batzordeen erabakien aurka iradokitzen diren errekurtsuak ezagutu eta ebaztera*» mugatzen da (urriaren 18ko 310/2005 Dekretuko 3.b artikulua).

Batzorde honek ez du organo aholku-emaile izaerarik, eta bere funtzioen artean ez dago kirol federazioei aholkularitza juridikoa ematearena, beren jardute-eremuan eskatzen den aholkularitza juridikoa dutela suposatzen delarik.

Horrenbestez, Euskadiko Ehiza Federazioak organo kolegiatu honen gainean jarri asmo duen deklarazioa bidegabea da, are gehiago kirol federazio hori ez denean errekurtsogilea, baizik eta hirugarren interesduna. Horrenbestez, errekurtsogileak ondorioztatzen dituen asmoak dira prozedura honetan erabakitzen direnak.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ADOSTU DU

Partzialki onestea xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, El Romeral, Ehiztarien Elkarteko presidentek, Arabako Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko urriaren 28ko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsuaren usteko ezespeneren aurka jarritako errekurtsua, eta horren arabera zera adierazten da:

1) Kirol klub eta elkarten estamentuaren hautesle-errolda Arabako Ehiza Federazioaren hauteskunde-prozesutik baliogabetu egiten da.

2) Antolamendu juridikoaren aurkakotzat jotzen da egintzak mantentzeko printzipioaren aplikazioa, 2016ko urriaren 28ko Hauteskunde Batzordearen Ebazpenean egindakoa.

3) Gainerako eskabideetan errekurtsua ezetsi egiten da.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 25a

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea